

Espedientea: / Expediente:	Dirulaguntza izendunak 15000 euro arte 2023WDI10002
Sarrera-erregistroa: / Registro de entrada:	01003 - 2023/04/04
Dekretu-zk.: / Nº Decreto:	2022/223
Titularra: / Titular:	HAUSPIBARRA KULTUR ELKARTEA
Ordezkaría: / Representante:	EUSEBIO UBERETAGOENA ARRATIBEL
Gaia: / Asunto:	Dirulaguntza izenduna: Hauspibarra Kultur Elkartea 2023ko programazioa

2023/337 ALKATE DEKRETUA

2023ko apirilaren 4an, G20808341 IFK zenbakidun den Hauspibarra Kultur Elkartearen izenean jarduten duen Eusebio Uberetagoena Arratibel NAN 15.913.855-V zenbakidunak aurkeztutako Udal Erregistroan 1003 sarrera zenbakidun 2023 urtean zehar garatuko duten "Hauspibarra kultur elkarteak 2023 urtean burutuko duen programazioa" eskaeraren bitartez Udal honi egindako 15.000,00 euroko dirulaguntza eskaera ikusirik,

Kontuan izanik, 2023ko apirilaren 5ean **2023WDI10002** espedientea ireki dela,

Kontuan izanik, 2023ko maiatzaren 9an Kultura eta Gazteria teknikariak egindako **2023-KG-TXOS033** txostena,

Kontuan izanik, Udal Kontu-Hartzaileak 2023ko ekainaren 2an espedienteari dagokion egindako txostena,

Kontuan izanik, 2023ko Udal aurrekontuan **1.09.334.00.481.01 2023 Transferentzia Hauspibarra** kontu-saila 15.000,00 euroko zenbatekoarekin sortua dagoela,

Zinegotzi honek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 23.4, 2568/1986 Errege Dekretuaren 43.3 artikularen arabera eta 314/2019 Alkate Dekretuan esleitzen zaizkidan ahalmenak erabiliz, honakoa

EBATZI DU:

LEHENENGOA.- Ibarra G20808341 IFK zenbakidun den Hauspibarra Kultur Elkarteari 2023 urtean zehar garatuko duten "Hauspibarra kultur elkarteak 2023 urtean burutuko duen programazioa" izendun proiektupeko programaziorako zuzeneko dirulaguntza izenduna ematea honako arrazoiengatik:

1. Herrian dagoen euskal kultura zaintzea eta zabaltzea helburu duen elkarte bakarra da.
2. Euskal kultura-ondare immateriala diren ohitura ezberdinak bultzatzen dituelako, herritarren artean zabaltzen dituelako eta haien transmisio eta babeserako lan egiten duelako.
3. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko parekidetasuna bultzatzen duelako.
4. Ibarrari izen ona eta ospea ematen diolako.

5. Herriko eragile aktiboa delako, euskal kultura herritarren artean zabalduz eta bertan parte hartzera gonbidatuz.
6. Ibarra herritarrei oro har, herrian bertan euskal kulturaren murgiltzeko eta jarduteko aukera ematen dielako.

BIGARRENA.- Honako jarduerak hauek jartzea diruz lagungarri gisa:

- Santa Ageda bezpera otsailaren 4an.
- "Tipularen sehaska kanta" filmaren emanaldia martxoaren 30ean.
- Zeramika tailerra maiatzaren 24ean.
- Sanjoan bezpera ekainaren 23an.
- "Ibarra, azoka eta piparra" azoka irailaren 17an.
- Babarrunaren eguna azaroan (data zehazteke).
- Euskararen eguna abenduaren 3an.
- Olentzeroren jaitsiera abenduaren 24an.
- Urtean zehar herriko elkarte eta eragile ezberdinekin elkarlanean sortu daitezkeenak.

HIRUGARRENA.- Ematea **15.000,00** euroko dirulaguntza zuzena Hauspibarra Kultur Elkarteari, bi zatitan ordainduta:

- Lehenengo ordainketa (hitzarmenaren sinadura burutu ondorengo 30 eguneko epean): **12.750,00 € (dirulaguntzaren %85a)**
- Bigarren ordainketa: **2.250,00 € (dirulaguntzaren %15a)** egindako gastua justifikatzen duen kontua alkate dekretu bidez onartutakoan.

LAUGARRENA.- Egoztea aipatu diru kopurua 2023ko 1.09.334.00.481.01 2023 Transferentzia Hauspibarra kultur elkartearen partida izendunari.

BOSGARRENA.- Ibarra 2023ko "Hauspibarra kultur elkarteak 2023 urtean burutuko duen programazioa" proiektua gauzatzeko eta diruz laguntzeko, Hauspibarra Kultur Elkartearekin lankidetzak hitzarmena sinatzea.

SEIGARRENA.- Dirulaguntza hau Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan argitaratzea.

ZAZPIGARRENA.- Dekretu honen berri Kontu-Hartzailetzari ematea.

ZORTZIGARRENA.- Aipatu akordio hau interesatuari jakinaraziko zaio (E).

BEDERATZIGARRENA.- Udalbatzari burutzen duen hurrengo ohiko bilkuran dekretu honen berri ematea.

Ibarra, 2023ko ekainaren 2an
KULTURA ETA GAZTERIA ZINEGOTZIA

Nagore Zubillaga Garmendia



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023WDI10002-337-2023 Alkate Dekretua/337-2023 Decreto Alcaldía ()